

Bizitzaren erritmoan

'Verba polita' poesia liburua kaleratu berri du Javier Aramendik • Porrota, nostalgia, sentimenduak eta beste landu ditu, «umorez zipriztinduta»

Saioa Alkaiza Guallar Donostia


«Poesia gazteen kontua izaten da? Asko, bai. Ez dakit bizitzaren indar-bulkada sentimendua den, baina badago indar bat, gero lasaitu egiten dena, baretu». Iñaki Aldekoa Erein argitaletzeko kideak esan du, *Verba polita* poesia liburuaren aurkezpenean. Haatik, ez da gaztea obraren egilea: 1959an jaio zen Javier Aramendi. Eta lehenengo aldiz argitaratu du liburu bat. Horregatik gustatu zaio Aldekoari, ez delako gaztaro betean sortutako idazki leherkaria, eta, aldi berean, baduelako poesiaren berezko indar hori. Badu, baina ez bat-batean eta azkar, «ahapaldika» antolatzen da gehiago, Aldekoaren irudiko. «Hemen [*Verba polita* obran] arintasuna dago; munduari begi-

ratzeko modu jakin bat». Heldutasunaren kronika dira olerkiak, baina bizitasunez idatziak.

Victor Hugoren aipu bat dago lehen orrialdean. «Pasaian, lan, dantza eta kanta egiten da». Nola, baina, esaldi horrek laburbiltzen du obraren mamia. Aramendik azaldu du: «Badira joko hutsa diren poemak, irtenaldiak, burutazioak edo dantza; badira alaiak, umoretsuak edo kanta; eta badira tonu serioa dutenak edo lana». Hugok esandako hiru multzotan sailkatzen ditu. Gaiet dagokienez, askotarikoa da: «Sentsazioak, sentimenduak, pentsamenduak, egoerak, idazkerari buruzko hausnarketak, nostalgia, denboraren iragatea, porrota...». Pentsa dezake inork obra serioa dela, berraz. Ordea, «umorez zipriztinduta» dago, egilearen irudiko. Eta

poemek hala berresten dute. Txistetik gertu dauden olerkiak ez dira gutxi.

Egilea forma eta simetriaren zalea dela nabarmendu du Aldekoak: «Munduko kaosa forma batera biltzeko ahalegina da poesia; isurkorra den horri forma ematea». Haren iritziz, ongi asmatu du Aramendik hitzak zizelkatzen. «Ahapaldiak eta erritmoak asko zaintzen ditu». Izenburuan bertan antzeman daiteke: *Verba polita*. Hau da, *berba*, baina *v*-rekin. Hitz-joko bat da, latinezko adierarekin. «*Verba* erretorika zaharrean erabiltzen den terminoa da», zehaztu du idazleak. Era berean, hitzen nolokotasunari erreparatu behar zaiola nabarmentzeko hautatu du izenburua. Estiloiari so, oro har, narrazioa da, baina bertso moldeak



Lehen liburua du idazleak. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

ere erabiltzen ditu. «Dena erritmoz eta musikaltatez», zehaztu du.

Lau ataletan banatu du liburua, bizitzaren aroak gogora ekarri nahian: haurtzarora, gaztarora, oraina eta zahartzarora. Gabezia bati erantzuteko egin du horrela: «Konturatu nintzen nire lehen liburua adin honekin argitaratuta saltatuko nituela hainbat etapa. Non daude idazle nerabe negarti

horren poesiak? Edo non dago geroago abangoardiazale amorratu bihurtuko den idazlea? Edo gero poesia soziala egingo duena? Eta azkenik tonu intimista sasi-mistikoa hartuko duena?». Horregatik, lau garaiak sartu ditu, eta orduko alegiazko poesiak idatzi ditu, bere burua performatuz. *Crescendo* bat da liburua. «Jolas hutsetik eta umoretik hasi, eta sertiotasunera doa».

BERRIaren eskutik, eksklusiban



DVD

Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal

Dokumentala - New York - Zuzenean

2013. urtearen amaieran dokumentaleko protagonistek argitaratutako izen bereko lanaren aurkezpenean oinarriturik, New Yorken egindako bira txikiak aukera zabalitzen digu euskal sentimenduaren irudikapen musikala eta poetiko bat egiteko.

8 euro

BERRIAlagunek: 6 euro



DISKO
LIBURUA:
16 euro,
DVDa opari

NOIZ eta NOLA EGIN ESKARIA?

Urriaren 26a baino lehen, **943-30 43 45** telefonoan.

BERRIAlaguna bazara, zuzenean eskatu, zure kodea erabiliz:

www.berria.eus/kioskoa promozioak atalean

Dokumentalaren aurkezpenak:

- **URRIAK 22:** BILBOko CAMPOS ELISEOS ANTZOKIAN, 20:00etan
Kupula aretoa
Bertendona, 3 Bis.
- **URRIAK 29:** BAIONAN,
Euskal Museoa, 18:00etan.
- **AZAROAK 12:** IRUÑEAN,
Katakra, 19:00etan.
- **AZAROAK 19:** GASTEIZEN,
Aldabe gizarte etxean, 19:00etan.
- **AZAROAK 26:** DONOSTIAN,
Aquariumean, 19:00etan.

KONTZERTUA

Joxan Lizarrilarr gogoan

- **ABENDUAK 19:** ANDOAINEN,
Bastero kultugunean, 20:00etan.

berria
mundua-euskarari-emana